

Eskerrik asko etorri zareten guztioi. Azken aldian pausu asko ematen ari dira Gipuzkoan zabor kudeaketaren inguruan. Gaur egun, 2 ildo nagusi daude; batetik Errausketaren aurkako herri plataformak proposatzen diharduguna, San Markos eta Debagoieneko mankomunitateak babestu dutena eta Europako zuzentarauei jarraituz zaborra gaika biltzeko ahalegina egiten duena (batez ere ia zaborraren erdia osatzen duen materia organikoa). Bestetik mugarik gabeko kontsumismoa eta herritarren kontzientzi eza bultzatzen dituen erraustegia, ondorio sanitario, sozial, ekologiko, eta ekonomiko kaltegarriak sortuko lituzkeena.

Guk defenditzen dugun eredua, atez ateko bilketa, European milioika bizilagunen zaborra biltzeko erabiltzen dute, duela urteak ezarri eta azkenaldian zabaltze handia izan duena, Kataluniako sistema kasu. Tipologia ezberdinetako etxebizitzetan arrakastaz ezarri da, bai dorre zein sakabanatutako etxeetan, eta 100.000 biztanletik gorako zenbait hiri handietan ere. Atez ateko bilketa Europako aginduei zorrotz jarraitu eta ekonomikoki merkeagoa den sistema da.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta dagozkion erakundeek ere sistema honi behar duen babesa ematea eskatzen dugu, batez ere ekonomikoa, sistema bakar bezala organikoa erreusarekin bilduta eta ondoren erraustegiara eramatea bultzatzen duten honetan. Arazoa konpondu ordez, gainera, zaborra gainera datorkie eta azken egunetan ikusi dugunez, Bizkaira eramateko hitzarmena egin behar izan dute. Txingudin egin nahi zuten erraustegia ere epaitegiek baliogabetu dute azken egunetan, ingurumen eragin estudioa egin gabe zutelako. Ez dugu ahaztu behar konpostatzen den zaborraren zati organikoa zabor izateari uzten diola, lehengai bihurtuz. Honek ez du ez zabortegei ezta erraustegiari behar ere, eta epe motzean ezarri daitekeen sistema da.

Beste behin ere oihukatu dugu **ERRAUSTEGIARIK EZ**. Ez dute erraustegiari egingo, baina horretarako gu guztion inplikazioa ezinbestekoa da. Zaborra etxean banatu behar dugu, batez ere organikoa. Gure plataformen parte hartzea gonbidatzen zaituztegu. Eta foru aldundi, Donostiako udala eta erraustegi zale diren beste erakundeei eskatu nahi diegu ez dezatela denbora zein diru gehiago galdu bukatu ezingo duten burugabekeri honekin. Has gaitezen gaur bertan alternatibak martxan jartzen.

Atxikimenduak: LAB ELA ESK CNT CCOO EHNE STEE-EILAS

AHT Gelditu! elkarlana

Hendaiako Ingurumenaren Aldeko Herritarrak (IAH)

Eguzki

Ekologistak Martxan

Greenpeace

Haritzalde

Añorgako Ingurumen Komisia

Zestoako Natur Taldea

Zubietako Herri Batzarra

Igeldoko Herri Kontseilua

Añorgako Gazte Asanblada

Antiguak Erraustegiari UKO!

XIRIKA Gazte Kazeta

Antiguotarrak elkarte

Donostiako Piratak

Herria Kultur Elkarte

Alde Zaharreko Gazte Asanblada

Ilunki Kultur Elkarte

Amara Bai

Amara Kirol Elkarte

Altzania Kultur Elkarte

Bidebietako Gazte Asanblada

Marruma Kultur Elkarte

Groseko Gazte Asanblada

Groseko Auzo Elkarte

Amara Berriko Jai Batzordea

Hontza Kultur Elkarte (Loiola)

Groseko Jai Batzordea

**Errausketaren Aurkako Herri Plataformen koordinadora**